

Ikasys

Ikasketa pertsonalizatua teknologia berriekin

900 gramoko ordenagailu eramangarria da Ikastolen Elkartearen Ikasys proiektuko protagonista. Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzen da eta badirudi haurrek gogoko dutela. Irakasle batzuekin ere izan gara, teknologia berriek dakartzaten aldaketek euren jardunean nola eragiten duten jakiteko.

JON TORNER

Argazkiak: Belai Irazabal

“**BIZITZA OSOA** idazten pasa dugu, eta aspertuta gaude jada. Ordenagailua askoz gehiago gustatzen zaigu”. Ignaciok esan digu hori, Orioko Herri Ikastolako ikasleak. Bederatzi urte ditu eta Ikasys proiektuan parte hartzen ari da, bere ikastolako beste zenbait haurrekin batera. Ingurunea-ko klasean dago, eta ordenagailu eramangarri txiki bat dauka mahai gainean. Baita gelako gainerako haurrek ere. Pantailatxoari serio-serio begiratzen diote guztiek. Bi irakasle mahaiz mahaiz dabiltza, sabairantz begiratzen duten hatz erakusle asko daudelako.

Ikasle bakoitzak ordenagailu bana

Ikasys proiektua proba fasean dago. Gipuzkoako hiru ikastolatan abiarazi dute: Orioko Herri Ikastolan, Donostiako Santo Tomas Lizeoan eta Oiartzungo Haurtzaron. 6 eta 12 urte bitarteko haurrekin ari dira probak egiten, eta emaitzak positiboak badira, datorren ikasturtean beste hamabi ikastetxetan jarriko dute proiektua martxan. Haren helburua ikasleen beharrei modu pertsonalean erantzutea da, ikasleek norberaren erritmora egokitutako ariketak egitea. Horretarako, bakoitzak ordenagailu eramanga-

Orioko Herri Ikastolan, Ingurunea-ko klasean.



Ikasys

rri bat erabiliko du klasean. Maite Gomez Ikasys proiektuaren koordinatzaileak azaldu digunez, fitxa, testu liburu eta lan koadernoekin zaila da laguntza pertsonalizatua ematea, ikasle ororen beharrei modu berean erantzuten dietelako, bakoitzaren gaitasun eta erritmoa kontuan hartu gabe.

Orioko Herri Ikastolako hurrek bost ikasgaietan erabiltzen dituzte ordenagailu txiki horiek: Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Matematika eta Ingurunea. Ikasgai bakoitzeko, astean ordu erdiz aritzen dira ordenagailuan. Marisa Aranburu bertako irakasle eta Lehen Hezkuntzako koordinatzailearen hitzetan ordenagailua denbora mugatuz erabiltzea ona da, ikastordu guztietan erabiltzeak ez lituzkeelako irakaskuntzaren erronka guztiak aseko: "Ikasysekin ezin da sorkuntza landu. Euskarari, adibidez, gramatika landu daiteke, baina ipuinen idazketa edota irakurketa ez". Memorizazio eta trebatze ariketak lantzea da Ikasysen helburu nagusia. Galdera zuzenak egiten zaizkie ikasleei, eta hiruzpalau erantzun dituzte aukeran. Ingurunea-ko klaseetan bederen bat-bateko erantzunetan oinarritutako test itxurako formula hori errepikatzen da. Eta badirudi ikasleak gustura dabiltzala. "Bizitza osoa" paper

Ordenagailu eta liburu
arteko oreka da gakoa.
Teknologia berriak ez datoz
liburuak ordezkatzera,
elkarren osagarri dira

artean pasa dute eta aparailu elektronikoei gehiago erakartzen dituzte.

Ikastetxean egon arren, ordenagailuak jolasekin, entretenimenduari lotzen dituztela esan digute euren irakasleek. Agian, erantzun egokia aukeratzen dutenean horregatik oihukatzen dute bideojokoetako "toma!" klasikoa, munstroa akabatu eta pantaila gainditu dutenaren seinale. Gainera, teklatuak esfortzu txikiagoa egitea eskatzen du: "Zaila da umeak liburuarekin motibatzea; eroso bizitzera geroz eta ohituago daude, eta esfortzurik ez dute egin nahi", adierazi digu Aranburuk.

Ignacioren alboan Eneko eta Paula esertzen dira. Liburuak erabiltzea baino, beraiek ere nahiago dute ordenagailuan aritzea. Aranbururen hitzetan, nabari da Playstation, Gameboy eta antzeko aparailuekin jolastera ohituak daudela. Dena den, liburuetatik hobeto ikasten dutela diote, gauzak errazago memorizatzen dituztela. Beharbada ez dira ohartzen "jolasean" dabilzan bitartean ikasten ere ari direla.

Irakaslearen papera aldatuko al da?

Ane Villak hamar urte daramatza irakasle moduan. Amaitzear dagoen ikasturtean



Marisa Aranburu irakaslea: "Internet tresna bezala oso positiboa da. Lehen liburua eman eta ikasleek irakurri egiten zuten. Orain Interneten sartu eta informazio mardoa dute eskura. Beharrezkoa da, ordea, irakurketa kritikoa egiten, informazio baliagarria topatzen erakustea. Noski, eskolaz gaindi, irakasleei ere badagokie jarraipena egitea, seme-alabak kontrolatzea. Askotan uste dugu ikasten ari direla eta Interneteko foro batean dabilta".

b-ikaskuntza

Interneten bitartez, ikaskuntza sistema mota berriak erabil daitezke, hala nola e-ikaskuntza (ikaskuntza elektronikoa, *electronic learning*) eta b-ikaskuntza (ikaskuntza mistoa, *blended learning*) izenekoak. Ikasys proiektua bigarren multzoan kokatzen da, ikasteko modu klasikoa eta elektronikoa uztartzen dituelako.

Ikasys ordenagailuaren ezaugarriak

Asus konpainiaren EeePc modelo.

- ✓ 7 hazbeteko pantaila.
- ✓ Linux edo Windows XP sistema operatiboak.
- ✓ 512 MB-eko DDR memoria.
- ✓ Datuak gordetzeko 4 GB-eko flash memoria.
- ✓ Pisu: 920 gramo.
- ✓ Prezioa: 300 euro.



Informazio gehiago: www.ikasys.net.

DBHko Teknologia zikloa ematen ari da Gasteizko Diocesanas ikastetxean. Ikasle helduagoak ditu, baina bat dator Gomez eta Aranbururekin: “Nabari da ikasleei tresna berriak interesatzen zaizkiela, baina irakasleak jokatzeko duen papera oso garrantzitsua da. Gure garaian irakasle oso onak zeuden, eta horrelako baliabideen laguntzarik ez zuten arren, euren irakasgaiak erakargarriak izatea lortzen zuten”.


Ikasleek gogoko dute klasean –informatika gelaz kanpo– teknologia berriak erabiltzea. Baina irakasleak erronka berriei erantzuteko prest al daude? Ikasys proiektuak irakasleentzat abantaila handiak ekarriko dituela dio Maite Gomezek. Zuzenketak adibidez azkarago egingo dituzte eta irabazitako denbora beste behar batzuei hobeto erantzuteko erabili ahal izango dute, ikasleek ariketak egitean izan ditzaketan galderei erantzuteko, esaterako.

Proiektuan parte hartzen ari diren irakasleak iritzi berekoak diren galdetu diogu, eta istorioak zurrumbilo handia sortu duela aitortu arren, oro har ez dutela trabarik jarri azaldu digu. Aranburuk, bestalde, proba fasean daudela nabarmendu du, eta oraindik goizegi dela ondorioak ateratzen hasteko. Berritoki errepikatu du ordenagailuen eta liburuen arteko oreka lortzea dela gakoa. Gomezek ere argi du hori, eta teknologia berriak ez datozela liburuak ordezkatzera, elkarren osagarri direla baizik.


Ane Villaren ustez, teknologia berriak klasean geroz eta gehiago erabiltzen doazen neurrian, irakaslearen papera aldatu egin beharko litzateke, ikasleei euren kabuz baliatzen erakustea izango delako hezkuntzaren ardatz nagusietako bat. “Eta horretarako gure lana zeharo moldatu behar dugu”, dio konbentziturik: “Duela gutxi arte, ariketa bat ebazteko eskatzen zenienean, zalantzarik izanez gero irakasleari galdetzen zioten. Orain beraiei eskatzen diegu erantzunak bilatzeko”. Internet oso tresna baliagarria omen da horretarako. Ikasleek badakite teknologia berriek joko handia eman dezaketela, eta urteen poderioz geroz eta trebatuago doaz eskolara. “Irakasleak, ordea, ez daude prestatuta, ezta kontzientziazatuta ere. Ordenagailuek lan egiteko modua errotik aldatzea eskatuko dute. Badirudi irakasle batzuk beldur direla, ikasleek beraiek baino gehiago jakin dezaketela ikusten dutelako. Bereziki 50 urtetik gorako irakasleen kasuan antzematen da hori. Ez dute aurrera egin nahi. Ulergarria da, baina aldaketetara egokitzen ez badira, majo sufrituko dute datozen urteetan”. Ane Villaren hitzak dira horiek. ■


www.arga.com/bideoak

helbidean, Orioko Herri Ikastolako esperientzia bideoan.



Dive Tarpoon Urpekaritza





Kirol portua, A7 lokala
48992 Getxo
Tel / Faxa: 94 4912577
e-posta: divetarpoon@euskalnet.net
web orria: www.divetarpoon.com

2008ko ekainaren 1a